



## -BEZ ZERGA TASEN ALDAKETAK-

**2/2024 Foru Dekretu Arauemailea, irailaren 3koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 26ko 3/2023 Foru Dekretu Arauemailea aldatzekoa.**

- **Oinarrizko elikagaiei, oliba-olioa barne, aldi baterako aplikatu beharreko zerga-tasa**

### **2024ko uztailaren 1etik 2024ko irailaren 30era bitarte:**

Entregak, inportazioak eta batasun barruko eskurapenak balio erantsiaren gaineko **zergaren ehuneko 0ko tasarekin** zergapetuko dira, produktu hauen kasuan:

- a) Ogi arrunta, bai eta ogi arruntaren ore izoztua eta ogi arrunt izoztua ere, ogi arrunta egiteko bakarrik erabiliak.
- b) Ogia egiteko irinak.
- c) Edozein animalia espeziek emandako esne mota hauek: naturala, ziurtatua, pasteurizatua, kontzentratua, gaingabetua, esterilizatua, UHT, lurrundua eta esne hautsa.
- d) Gaztak.
- e) Arrautzak.
- f) Elikadura Kodearen eta hura garatzeko onartutako xedapenen arabera, produktu naturaltzat hartzen diren frutak, berdurak, barazkiak, lekaleak, tuberkuluak eta zerealak.
- g) Oliba olioak.

Eragiketa horiei aplikatuko zaien **baliokidetasun errekgua ehuneko 0** izango da.

**2024ko urriaren 1etik abenduaren 31ra arte, BEZaren % 2ko tasa** eta % 0,26ko baliokidetasun-errekarguaren tasa aplikatuko dira.

**2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin oliba olioaren %4an** zergapetuko da

- **Hazi eta elikadura-oreen olioari aldi baterako aplikatu beharreko zerga-tasa:**

### **2024ko uztailaren 1etik 2024ko irailaren 30era bitarte**

Entregak, inportazioak eta batasun barruko eskurapenak balio erantsiaren gaineko zergaren **ehuneko 5eko tasarekin** zergapetuko dira, produktu hauen kasuan:

- a) Hazi olioak.



b) Jateko pastak.

Eragiketa horiei aplikatuko zaien baliokidetasun **errekargua ehuneko 0,62** izango da.

**2024ko urriaren 1etik abenduaren 31ra arte**, BEZaren **% 7,5ko tasa eta % 1ko baliokidetasun-errekarguaren tasa** aplikatuko dira